

LITERAKTUM TXIKIA 2022

AZAROA 2-27 NOVIEMBRE

TXANO ETA OSCAR ANAIEN ABENTURAK ILUSTRAZIO LEHIAKETA
CONCURSO DE ILUSTRACIÓN LAS AVENTURAS
DE LOS HERMANOS TXANO Y OSCAR

ANTZERKIA
TEATRO

IPUIN KONTAKETA ILUSTRATUAK ETA MUSIKATUAK
CUENTACUENTOS ILUSTRADOS Y MUSICALES

ILUSTRATZAILEEKIN TAILERRAK
TALLERES CON ILUSTRADORAS

IRAKURKETA KLUBA
CLUB DE LECTURA

HAURREN EGUN UNIBERTSALAREN 6. FESTA
6º FIESTA DEL DÍA UNIVERSAL DE LA INFANCIA

INFORMAZIO GEHIAGO MÁS INFORMACIÓN
WWW.LITERAKTUM.EUS



LITERAKTUM TXIKIA

AZAROA 2-27 NOVIEMBRE

2022



donostia
kultura



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

- ▶ Gazteria
- ▶ Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural



Galtzagorri
elkarrea

mestiza
ASOCIACIÓN ARTÍSTICA-SOCIOCULTURAL

XAGUTXO, IRAKURLE KARRASKARIA



AUPA XAGUTXO DEITZEN NAIZ, XAGUTXO
GAZTABERRIA. LIBURUTEGI-SAGUA NAIZ.
IRAKURTZEA DA GEHIEN MAITE DUDANA,
GAZTA BEZAINBESTE, KARRASK-KARRASK...



BEHIN, PARTE ZAHARREKO HAUR LIBURUTEGIA
DESKUBRITU NUEN. UAH! HANGO LIBURUAK
IRAKURRIZ ABENTURA BIKAINAK BIZI IZAN NITUEN,
IDIAZABAL GAZTA BEZAIN EDERRAK...
ETA HAINBESTE GOZATU NUEN, DONOSTIAKO
LIBURUTEGIAK AURKITZEARI GOGOZ EGIN BAINION!



ALTZAKO TOMASENE KULTUR ETXEKO
LIBURUTEGIRA ABIATU NINTZEN HANDIK, FIIST!.
BARRUAN ZENBAT LIBURU, BUA!, BOLA-GAZTA
BEZAIN GUSTAGARRIAK GUZTIAK. UMM!



ETA AZKENEAN, AIETEKO KULTUR ETXEKO
LIBURUTEGIAN AMAITU NUEN HAINBAT EGUNETAKO
IBILALDIA. ISTORIO BITXI BITXIAK IRAKURRI ETA
BIZI NITUEN HAN, GAZTA BERRIA BEZAIN
BIKAINAK...



ETA HARA, HANDIK GERTU GROS AUZOKO OKENDO
KULTUR ETXEKO LIBURUTEGIA
AURKITU NUEN, UFFI, UFFA, HURRA!
HAMAIKATXO LIBURU IRAKURRI NITUEN HAN,
GAZTA ZAHARRA BEZAIN ZAPORETSUAK, UMM!



LOIOLAKO KULTUR ETXEKO LIBURUTEGIAN SARTU
NINTZEN GERO, ETA KARRASSS... BIBOTEAK
MIAZKATZEKO MODUKO LIBURUAK AURKITU
NITUEN HAN; EHUNKA ZEUDEN, BATZUK
GAZTANBERA BEZAIN SAMURRAK...



ETA HANDIK ALDE EGIN BAINO LEHEN...TTAKA!,
BROTXA ETA MARGOAK HARTU NITUEN. LETRA
HANDIZ HAUXE IDATZI NUEN LIBURUTEGIKO HORMA
NAGUSIAN, NIRE IZEN ETA GUZTI, BIHARAMUNEAN
NESKA-MUTIKO GUZTIEK IRAKUR ZEZATEN:



"EZ DAGO IRAKURTZEA BEZALAKO GOZAMENIK!"
(XAGUTXO GAZTABERRIA)
AGUUUUUR!

IDAZLEA: XABIER OLASO
ILUSTRATZAILEA: EIDER EIBAR

